# Pribatuen iragarpenak

**COOPERATIVA LECHERA OROZCANA, S. COOP. LTDA.**

IRAGARPENA, Cooperativa Lechera Orozcana, S. Coop. Ltda. desegiteko akordioari buruzkoa. 11382

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 3363

162/1996 DEKRETUA, uztailaren 2koa, Kanpo Harremanetarako Sail Arteko Batzordea sortu zuen dekretua aldatzeko dena.

Otsailaren 2ko 13/1993 Dekretuaren bitartez sortu zen Kanpo Harremanetarako Sail Arteko Batzordea; batetik, Europako Batasunaren eskakizunetara egokitzeko prozesua bultzatzeko eta, bestetik, Jaurlaritzaren kanpo egintzak koordinatzeko lanetan Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari laguntzeko, berak baitu horren ardura.

Lehendakaritzaren egitura organikoa eta zereginak zehazten dituen ekainaren 20ko 305/1995 Dekretuaren 5. atalaren lehenengo idazatiaren arabera, Kanpo Harremanetarako Sail Arteko Batzordea sail horri atxikita egongo da eta, Gehigarrizko Xedapenaren arabera, Jaurlaritzaren lehendakariordearen zeregina izango da, besteak beste, lehendakaria nazioarteko foruetan ordezkatzea. Bestalde, Lehendakariordetzaren egitura organikoa eta zereginak zehazten dituen urriaren 31ko 463/1995 Dekretuaren 3. atalaren arabera, lehendakariordea arduratuko da Jaurlaritzaren egintza orokorrak eta sektorekakoak koordinatzeaz, lehendakariaren zuzendaritzapean.

Funtzio bi horiek bete ahal izateko eta Kanpo Harremanetarako Sail Arteko Batzordea eraginkorragoa izan dadin, egoki ikusten da batzordearen lehendakari Jaurlaritzaren lehendakariordea izatea, horretarako behar diren eskumenak esleituko zaizkiolarik. Horretaz gain, onartu zenetik gertatu diren arau aldaketei ere egokitu behar zaie aipatutako 13/1993 Dekretua eta bertan aurrikusten diren sekzioen ordez organoak sortzeko aukera ere ireki nahi da, Kanpo Harremanetarako Sail Arteko Batzordearen babesean, horren jarduketa eremuan berariazko funtzioak bete ditzaten. Arau honek, beraz, 13/1993 Dekretua aldatzen du, helburu horiek bete ahal daitezen.

Ondorioz, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko uztailaren

# Anuncios Particulares

**COOPERATIVA LECHERA OROZCANA, S. COOP. LTDA.**

ANUNCI0 de acuerdo de disolución de Cooperativa Lechera Orozcana, S. Coop. Ltda. 11382

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 3363

DECRETO 162/1996, de 2 de julio, de modificación del Decreto por el que se crea la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior.

El Decreto 13/1993, de 2 de febrero, creó la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior como órgano de impulso del proceso de adaptación a las exigencias de la Unión Europea y como órgano de apoyo a la Secretaría General de Acción Exterior en la función de coordinación de la acción exterior del Gobierno que corresponde a ésta.

El Decreto 305/1995, de 20 de junio, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, adscribe a ésta en su artículo 5, párrafo primero, la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior, asignando al Vicepresidente del Gobierno en su Disposición Adicional, entre otras funciones, la representación del Lehendakari en los Foros Internacionales. Por su parte, el Decreto 463/1995, de 31 de octubre, por el que se aprueba la estructura orgánica de la Vicepresidencia del Gobierno, establece en su artículo 3 que el Vicepresidente coordina la acción general y sectorial del Gobierno bajo la dirección del Lehendakari.

Para posibilitar el ejercicio de ambas funciones, y en aras a la mayor operatividad de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior, procede que ésta sea presidida por el Vicepresidente del Gobierno, asumiendo las atribuciones que ello conlleva. La presente norma modifica el Decreto 13/1993, con ese objeto, además de actualizarlo a los cambios normativos producidos desde su aprobación, y de abrir la posibilidad de crear órganos, en lugar de secciones como anteriormente estaba previsto, que, actuando bajo la dependencia de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior, realicen funciones específicas en el ámbito de actuación de ésta.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia del Gobierno, y previa deliberación y aprobación del Con-

2an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Lehenengo atala.*– Otsailaren 2ko 13/1993 Dekretuaren 1. atala -«Sortzea eta atxikitzea»- aldatzea.

Dekretuaren 1. atala aldatu egiten da. Ondorioz, horrela gelditzen da:

«Lehendakaritzari atxikituta, Kanpo Harremanetarako Sail Arteko Batzordea sortu da; batetik, Europako Batasunak dakartzan eskakizunei egokitzeko prozesua bultzatzeko organo lez eta, bestetik, ekainaren 20ko 305/1995 Dekretuaren 13. atalean ezarritakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kanpo Harremanak koordinatzea, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, Idazkaritza horri, koordinatze lanetan laguntzeko organo lez».

*Bigarren atala.*– Otsailaren 2ko 13/1993 Dekretuaren 2. atala -«Osakera»- aldatzea.

Dekretuaren 2. atalaren 1. idazatia aldatu egiten da. Ondorioz, «-Lehendakaria: Lehendakaritzako idazkaria» adierazpenaren ordez hau jarriko da:

«– Lehendakaria: Jaurlaritzaren lehendakariordea».

*Hirugarren atala.*– Otsailaren 2ko 13/1993 Dekretuaren 4. atala -«Funtzionamendua»- aldatzea.

Dekretuaren 4. atala aldatu egiten da. Ondorioz, horrela gelditzen da:

«3.– Kanpo Harremanetarako Sail Arteko Batzordeak bere jarduketa eremuan berariazko funtzioak beteko dituzten organoak sortzea proposatu ahalko du. Aipatutako organoek Batzordearen menpe jardungo dute eta horien osaketa eta funtzioak proposamenean zehaztuko dira».

*Laugarren atala.*– Otsailaren 2ko 13/1993 Dekretuaren 6. atala -«Barne araudia»- aldatzea.

Dekretuaren 6. atala aldatu egin da eta idazketa berri hau eman zaio:

«6. atala.– Barne araudia.

Batzordeak berak ezarriko ditu bertako funtzionamendurako arauak eta, hala egin ezean, Herri-Administrazioen Lege–Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. idazpuruko II. atalburuan xedatutakoari jarraituko zaio».

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko uztailaren 2an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

sejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 2 de julio de 1996,

DISPONGO:

*Artículo primero.*– Modificación del artículo 1 «Creación y adscripción» del Decreto 13/1993, de 2 de febrero.

El artículo 1 del citado Decreto queda modificado dándole la siguiente nueva redacción:

«Se crea, adscrita a la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior como órgano de impulso del proceso de adaptación a las exigencias de la Unión Europea y como órgano de apoyo a la Secretaría General de Acción Exterior en la función de coordinación de la acción exterior del Gobierno que corresponde a ésta, en virtud del artículo 13 del Decreto 305/1995, de 20 de junio».

*Artículo segundo.*– Modificación del artículo 2 «Composición» del Decreto 13/1993, de 2 de febrero.

El artículo 2 del citado Decreto queda modificado en su párrafo 1, sustituyendo la expresión «-Presidente: El Secretario de la Presidencia», por la siguiente:

«– Presidente: El Vicepresidente del Gobierno».

*Artículo tercero.*– Modificación del artículo 4 «Funcionamiento» del Decreto 13/1993, de 2 de febrero.

El artículo 4 del citado Decreto queda modificado en el sentido de dar a su párrafo 3 la siguiente nueva redacción:

«3.– La Comisión Interdepartamental de Acción Exterior podrá proponer la creación de órganos que, actuando bajo su dependencia, realicen funciones específicas en el ámbito de actuación de la Comisión Interdepartamental, determinando en la propuesta la composición y funciones de dichos órganos».

*Artículo cuarto.*– Modificación del artículo 6 «Régimen interno» del Decreto 13/1993, de 2 de febrero.

El artículo 6 del citado Decreto queda modificado dándole la siguiente nueva redacción:

«Artículo 6.– Régimen interno.

La Comisión establecerá sus propias normas de funcionamiento o, en su defecto, se regirá por lo dispuesto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de julio de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.